

Euskadi Unibertsala

Iñaki Uria

Berría, 2003-10-17: 11.

Euskaldun Unibertsala izendatu dute Martin Ugalde. Ondo merezita, gainera. Euskaldunak unibertsalizatzen egindako lanagatik. Unibertsoa euskalduntzen egindako lanagatik ere bai. Euskarari, euskaldunoi munduari leihoak zabaltzen lagundu digulako. Euskal Herriak munduari egin diezaiokeen ekarpen nagusia euskaldun izaten, nazio izaten segitzea zela ikusi zuelako eta ikusten lagundu digulako.

Oraindik ere elkarren ukazio gisa planteatzen zaizkigu maiz bi termino horiek: euskalduna *versus* unibertsala. Edo Euskal Herria *versus* mundua. Euskal Herria lur azaletik desagerrarazi nahi dutenek bultzatzen zuten (eta dute) dikotomia hori, jakina. Baina ez horiek bakarrik. Mundua euskararen eta Euskal Herriaren etsai delakoan, euskalduntasuna bere birjintasunean mundutik at gordetzearen aldekoa ere izan dira. Batzuei eta besteei egin die aurre Martinek, euskalduntasuna unibertsalizatuz, unibertsoa euskaldunduz.

Beste hainbat euskaldunekin batera, erbesteratu egin behar izan zuen Martinek Espainiako gerraren ondorioz. Erbesteratu eta hitz-besteratu: Venezuelako espainiera hartu zuen kazetari lanbiderako eta literatur sormenerako. Venezuelako espainiera egin zuen bere. Eta Venezuelak bere egin zuen Martin. Hungariar, poloniar, italiar, asturiar edo euskal erbesteratuak bilduko ditu bere lumak, emigrazioaren fenomeno unibertsala estilorik finenean eta apalenean kontatuz. Etxe-orratzean gora, aldamiotan zintzilik langileak ametsetan eta hizketan; han behean, jendea kalean: "Goitik begiratuta ez da gizon handirik". Venezuela Amerika zen orduan: erbesteratu haien guztien Amerika. Miserian bizi eta eraikitzen ari ziren etxe-orratz horretan garapenarekin amesten zutenen Amerika. Eta Martinek goraino egin zuen Venezuelen, kazetari batek edo idazle batek amets litzakeen denak bereganatu zituen Venezuelak bere egin zuenean.

Baina..., beti dago bainaren bat, ez zuen ahaztu munduan izateko berak zeukan modua. Erbesteratua eta hitz-besteratua zen. Erbertaratzea, hitz-bertaratzea erabaki zuen. Eta bere historia berreskuratuz, gure historia irakatsi zigun, batzuen ukazioari eta besteen idealizazioei aurre eginda. Eta, beldur bereizkeriazaleei aurre eginda, euskara batuaren alde egin zuen. Eta euskal herrigintzan ere batuaren alde egin behar dela erakutsi digu orduz geroztik, bere bizi politikoan. Sasian eta argitan. Luteroren aitzin Erasmus aukeratu zuen Martinek. Hautsizaleen aurrean bateragileak.

Baina geldizaleen aurrean aurrerazaleak. Diruzaleen aurrean gazte ameslari eta sosik gabekoak. "Ezin da" eta "Ez da momentua" zioen ofizialtasunaren aurrean, "Posible da" esan eta *Egunkaria*-ren sorreran erabat murgilduz. Zer ekarpen garrantzitsuago egin diezaioke kazetari euskaldun batek munduari euskaldunoi munduaren berri gure hizkuntzan ematea baino? Baina..., beti dago bainaren bat, *Egunkaria* itxi ziguten, Martin.

Erbesteratu zintuzten berberak. Erbesteratu gaituzten berberak. Hitz-besteratu nahi gaituzten berberak. Sari hau ukatu nahi dizuten berberak.

Euskal Herria mundutartu du; mundua euskaldundu du. Saria merezi zuen Martinek. Pozik nago. Baina nago gehiago ere merezi zuela. Martinek Amerika aurkitu zuen, baina Euskadi merezi zuen.